

KANBO HERRIA

Pirinio Atlantikoetako departamendua

ERABAKIEN AKTA

2020ko EKAINAren 29ko BILKURA

Bi mila eta hogeiko ekainaren hogeita bederatzigarren egunean biltzera deiturik, herriko biltzarra Eliane AIZPURU lehen orde anderearen lehendakaritzapean, bildu da. Biltzarra arratseko 7etan hasi da.

Hor ziren: Eliane Aizpuru, Jean-Noël Magis, Yolande Huguenard, Didier Irastorza, Marie Aristizabal, Robert Poulou, Christiane Hargain-Despéries, Vincent Goytino, ordeak; Véronique Cadepond-Larronde, Peio Etcheleku, Corinne Othatceguy, Jean-Paul Eyherachar, Nicole Amestoy, Jean-Jacques Lassus, Isabelle Ayerbe, Jean-François Lacosta, Maud Gastigard, Roger Barbier, Bernadette Remeau, Sébastien Carre, Carmen Gonzalez, Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Michel Duthilleul, herri kontseilariak.

Ezin etorriak: Christian Devèze jauna, Auzapeza; Lilian Hirigoyen anderea herri kontseilaria.

Ahalordeak: Christian Devèze jaunak Eliane Aizpuru andereari; Lilian Hirigoyen andereak Argitxu Hiriart-Urruty andereari.

– Saioko idazkariaren izendapena.

Biltzarkideek aho batez, Jean-Paul Eyherachar hautatu dute saioko idazkari izateko.

– Solasgaietan gehitzeoak diren gaiak (Aizpuru andereak aurkeztua).

Aizpuru andereak Herri Biltzarrari proposatu dio bi solasgai gehitzea:

- 1) Eskolen kutxarako 2020ko dirulaguntza, 29. zenbakia hartuko lukeena,

Aho batez onartua. Solasgaietan sartua da beraz.

- 2) Herriko horma publiko eta pribatuen gainean egiten diren idazkien kontrako mozioa, 30. zenbakia hartuko lukeena

Gehiengoz onartua.

Kontra bozkatu dutenak : Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Michel Duthilleul, Lilian Hirigoyen.

Ondorioz, hau ez da solasgaietan sartuko.

– Iragan biltzarraren aktaren onarpena (Aizpuru andereak aurkeztua).

Herri Biltzarkideei proposatzen die 2020ko ekainaren 11ko Herri Biltzarraren akta onartzea.

Aho batez onartua.

21 – Tokiko zergak: tasaren finkatzea (Aizpuru andereak aurkeztua).

Frantziako 2020ko finantza legeak etxebizitza nagusien gaineko bizitegi zerga osoki eta behin betirako kentzea aurreikusten du, eta herriko etxeei zerga horren tasa finkatzeko boterea kentzen die bide batez.

Ondorioz, herri biltzarrak eraikiak diren lur sailen (TFB) eta eraikiak ez diren lur sailen (TFNB) gaineko lur funtsen zergaren tasa onartu behar du, bere lur eremuarentzat.

2020rako, proposatzen da tasaren emendatzea 2018ko abenduaren 31tik 2019ko abenduaren 31ra arteko inflazioaren heinekoa izatea, hots %1,1:

Eraikiak diren lur sailak: %10,88

Eraikiak ez diren lur sailak: %25,46

Gehiengoz onartua.

Kontra bozkatu dutenak : Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Michel Duthilleul, Lilian Hirigoyen.

22 – Herri batzordeak: batzordeen sortzea eta kideen izendapena (Aizpuru andereak aurkeztua).

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2121-22 artikulua arabera, Herri Biltzarrak batzordeak sor ditzake, administrazioak edo biltzarkide batek pausatuko lituzkeen galderak aztertzeko.

Batzorde horiek proportzionaltasunaren printzipioa bete behar dute, herri biltzarrean hautetsien iritzien aniztasuna bermatua izan dadin.

Herri Biltzarrari honakoa proposatzen dio:

A. Agintaldiaren iraupenerako, zortzi batzorde sortzea, jakinez auzapeza dela eskubidezko Presidentea:

1. Ekonomia: Osasuna – Termak – Laborantza – Merkataritza – Ofizialeak – Turismoa;
2. Herri animazioak eta bestak – Kirolak – Elkarteak;
3. Kultura – Euskara – Komunikazioa – Senidetze;
4. Obrak: Eraikinak – Bideak – Sareak – Auzoak;
5. Hirigintza – Etxebizitza;
6. Ingurumena – Baratzeak – Oihanak – Garapen iraunkorra;
7. Finantzak;

8. Eskolak – Haurtzaroa – Gazteria (bekak, aisialdi zentroa).

B. Batzorde bakoitzean hamar hautetsi izendatzea, salbu 8. batzordean (eskolak- haurtzaroa- gazteria) zortzi.

Aho batez onartua.

C. Batzorde bakoitzean izanen diren hautetsien izendatzea.

Proporzionaltasunaren irizpidea segituz, gehiengoko taldeak zortzi leku izanen ditu hamarreko batzordeetan eta sei zortzikoetan, eta oposizioko taldeak batzorde bakoitzean bi leku.

Biltzarkideek aho batez erabaki dute bozka eskua altxatuz egitea.

1. Ekonomia: Osasuna – Termak – Laborantza – Merkataritza – Ofizialeak – Turismoa

- Peio ETCHELEKU
- Eliane AIZPURU
- Sébastien CARRE
- Maud GASTIGARD
- Yolande HUGUENARD
- Didier IRASTORZA
- Jean-François LACOSTA
- Robert POULOU
- Nathalie AÏÇAGUERRE
- Michel DUTHILLEUL

2. Herri animazioak eta bestak – Kirolak – Elkarteak

- Yolande HUGUENARD
- Isabelle AYERBE
- Véronique CADEPOND-LARRONDE
- Maud GASTIGARD
- Carmen GONZALEZ
- Didier IRASTORZA
- Corinne OTHATCEGUY
- Robert POULOU
- Philippe BACARDATZ
- Lilian HIRIGOYEN

3. Kultura – Euskara – Komunikazioa – Senidetzea

- Robert POULOU
- Roger BARBIER
- Véronique CADEPOND-LARRONDE
- Peio ETCHELEKU
- Vincent GOYTINO
- Jean-Jacques LASSUS
- Corinne OTHATCEGUY
- Bernadette REMEAU
- Nathalie AÏÇAGUERRE
- Amaia BEYRIE

4. Obrak: Eraikinak – Bideak – Sareak – Auzoak

- Jean-Paul EYHERACHAR
- Eliane AIZPURU

- Nicole AMESTOY
- Isabelle AYERBE
- Christiane HARGAIN-DESPERIES
- Yolande HUGUENARD
- Jean-François LACOSTA
- Jean-Noël MAGIS
- Jean-Paul ALAMAN
- Philippe BACARDATZ

5. Hirigintza – Etxebizitza

- Jean-Noël MAGIS
- Eliane AIZPURU
- Véronique CADEPOND-LARRONDE
- Jean-Paul EYHERACHAR
- Maud GASTIGARD
- Didier IRASTORZA
- Jean-François LACOSTA
- Corinne OTHATCEGUY
- Jean-Paul ALAMAN
- Argitxu HIRIART-URRUTY

6. Ingurumena – Baratzeak – Oihanak – Garapen iraunkorra

- Vincent GOYTINO
- Roger BARBIER
- Jean-Paul EYHERACHAR
- Christiane HARGAIN-DESPERIES
- Jean-François LACOSTA
- Jean-Jacques LASSUS
- Jean-Noël MAGIS
- Bernadette REMEAU
- Nathalie AÏÇAGUERRE
- Michel DUTHILLEUL

7. Finantzak

- Eliane AIZPURU
- Peio ETCHELEKU
- Vincent GOYTINO
- Christiane HARGAIN-DESPERIES
- Yolande HUGUENARD
- Didier IRASTORZA
- Jean-Noël MAGIS
- Robert POULOU
- Philippe BACARDATZ
- Michel DUTHILLEUL

8. Eskolak – Haurtzaroa – Gazteria (bekak, aisialdi zentroa)

- Marie ARISTIZABAL
- Roger BARBIER
- Véronique CADEPOND-LARRONDE
- Carmen GONZALEZ
- Didier IRASTORZA

- Corinne OTHATCEGUY
- Argitxu HIRIART-URRUTY
- Lilian HIRIGOYEN

Talde bakoitzarentzat « Unis Pour Cambo » zerrendak 22 boz ukan ditu (Christian Devèze, Eliane Aizpuru, Jean-Noël Magis, Yolande Huguenard, Didier Irastorza, Marie Aristizabal, Robert Poulou, Christiane Hargain-Despéries, Vincent Goytino, Véronique Cadepond-Larronde, Peio Etcheleku, Corinne Othatceguy, Jean-Paul Eyherachar, Nicole Amestoy, Jean-Jacques Lassus, Isabelle Ayerbe, Jean-François Lacosta, Maud Gastigard, Roger Barbier, Bernadette Remeau, Sébastien Carre, Carmen Gonzalez) eta « Nahi Dugun Herria » zerrendak 7 boz, (Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Michel Duthilleul, Lilian Hirigoyen).

23 – Merkatu ez egonkorraren aholku batzordea: kideen eta kanpoko ordezkarien izendapena (Aizpuru andereak aurkeztua).

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2143-2 artikulua araber, Herri Biltzarrak aholku batzordeak sor ditzake herriko lurraldearen zati bati edo osoari dagokion herriaren intereseko arazoentzat. Batzorde horietan biltzarkideak ez diren pertsonak egon daitezke, bestek beste elkarrekin ordezkariak.

Herri Biltzarrari honakoa proposatu dio:

- merkatu ez egonkorrari buruzko aholku batzorde baten sortzea,
- batzorde horietan eserlekua izanen duten bost herri biltzarkideak (lau gehiengotik eta bat oposiziotik) eta hautetsi ez diren kideak izendatzea.

Biltzarkideek aho batez erabaki dute bozka eskua altxatuz egitea.

Hautagaiei dei egin eta, « Unis Pour Cambo » zerrendak lau hautagai aurkeztu ditu: Véronique Cadepond-Larronde, Sébastien Carre, Christiane Hargain-Desperies, Didier Irastorza 22 bozekin, eta « Nahi Dugun Herria » zerrendak hautagai bakarra aurkeztu du: Michel Duthilleul 7 bozekin.

- Aholku batzordeko kide izendatuak dira:

- Véronique CADEPOND-LARRONDE
- Sébastien CARRE
- Christiane HARGAIN-DESPERIES
- Didier IRASTORZA
- Michel DUTHILLEUL

« Unis Pour Cambo » zerrendak 22 bozekin, eta « Nahi Dugun Herria » zerrenda 7 bozekin.

- Hautetsi ez diren aholku batzordeko kideak:

- Kanboko Merkatari eta Ofizialeen Batasuna, Ximun DUHOUR jauna, edo bere ordezkoa
- Kanboko merkatu ez egonkorreko merkatarien ordezkaria, Jean-Pierre GOGNY jauna, edo bere ordezkoa
- Merkatari Ez Egonkorren Akitaniako taldea, David NOBLIA jauna, edo bere ordezkoa
- Merkatari Ez Egonkorren eta Sindikatuen Frantziako Federazioa, Rachel GEOFFROY anderea, edo bere ordezkoa

- **Eskubidezko kideak:**

- Christian DEVEZE, Auzapeza
- Serge LARTIGUE, ZZN
- Christine ASCARAIN, merkatu ez egonkorraren leku emailea
- Frantz CANDAS, udaltzaina
- Tom ROUSSELLE, udaltzaina

– **Zerga zuzenen herri batzordea: kideen izendapena (Aizpuru andereak aurkeztua).**

Gai hau solasgaitik kendua izan da eta bertze herri biltzar batean aipatuko da.

Ondorioz, datozen erabakiak 24. zenbakiarekin hasiko dira

24 – Herriko ordezkarien izendapena elkargorako eta beste erakundeetarako (Aizpuru andereak aurkeztua).

Aizpuru andereak Herri Biltzarrari proposatu dio elkargorako eta beste erakundeetarako herri ordezkariak izendatzea.

Biltzarkideek aho batez erabaki dute bozka eskua altxatuz egitea.

24A - Artzamendi XBHAS:

« Unis Pour Cambo » zerrendak honakoa aurkeztu ditu:

Didier Irastorza eta Marie Aristizabal, kide titular gisa,
Carmen Gonzalez eta Corinne Othatcegy, ordezeko gisa.
22 boz eskuratu dituzte

« Nahi Dugun Herria » zerrendak honakoak aurkeztu ditu:

Lilian Hirigoyen eta Jean-Paul Alaman, kide titular gisa,
Nathalie Aïçaguerre eta Argitxu Hiriart-Urruty, ordezeko gisa.
7 boz eskuratu dituzte.

Artzamendi XBHASerako ordezkari izendatu dira:

- Titular gisa: Didier Irastorza eta Marie Aristizabal
- Ordezeko gisa: Carmen Gonzalez eta Corinne Othatcegy.

24B - Zahar etxeetako egitura kontseiluak (MAPOE/EHPAD):

« Unis Pour Cambo » zerrendak honakoak aurkeztu ditu:

- Ste Elisabeth: Corinne Othatcegy
- Arditeya-Vieil Assantza: Roger Barbier
- Bon Air: Nicole Amestoy
- Musdehalsuenia: Eliane Aizpuru

22 boz eskuratu dituzte

« Nahi Dugun Herria » zerrendak honakoak aurkeztu ditu:

- Ste Elisabeth: Michel Duthilleul
- Arditeya-Vieil Assantza: Argitxu Hiriart-Urruty
- Bon Air: Amaia Beyrie
- Musdehalsuenia: Philippe Bacardatz

7 boz eskuratu dituzte.

Zahar etxeetako (MAPOE/EHPAD) kontseiluetarako ordezkari izendatu dira:

- Ste Elisabeth: Corinne Othatcegy
- Arditeya-Vieil Assantza: Roger Barbier
- Bon Air: Nicole Amestoy
- Musdehalsuenia: Eliane Aizpuru

24C - Celhaya-ko egitura kontseilua:

« Unis Pour Cambo » zerrendak Roger Barbier aurkeztu du eta honek 22 boz eskuratu ditu.

« Nahi Dugun Herria » zerrendak Argitxu Hiriart-Urruty aurkeztu du eta honek 7 boz eskuratu ditu.

Celhaya-ko egitura kontseilurako ordezkari izendatu da:

- Roger Barbier.

24D - Turismo Bulegoa:

« Unis Pour Cambo » zerrendak Didier Irastorza eta Yolande Huguenard aurkeztu ditu eta hauek 22 boz eskuratu dituzte.

« Nahi Dugun Herria » zerrendak Jean-Paul Alaman eta Argitxu Hiriart-Urruty aurkeztu ditu eta hauek 7 boz eskuratu dituzte.

Turismo Bulegorako ordezkari izendatu dira:

- Eskubidezko kidea: Auzapeza
- Ordeak: Didier Irastorza eta Yolande Huguenard

24E - Pirinio Atlantikoetako Energiaren Departamenduko Sindikata (SDEPA):

« Unis Pour Cambo » zerrendak honakoak aurkeztu ditu:

Vincent GOYTINO eta Roger BARBIER, titular gisa;
Jean-Noël MAGIS eta Bernadette REMEAU, ordezkari gisa.
22 boz eskuratu dituzte.

« Nahi Dugun Herria » zerrendak honakoak aurkeztu ditu:

Philippe BACARDATZ eta Michel DUTHILLEUL, titular gisa;
Nathalie AÏÇAGUERRE eta Amaia BEYRIE, ordezeko gisa. 7 boz eskuratu dituzte.
Pirinio Atlantikoetako Energiaren Departamenduko Sindikatarako ordezkari izendatu dira

Titularrak	Ordezkoak
Vincent GOYTINO	Jean-Noël MAGIS
Roger BARBIER	Bernadette REMEAU

24F - Ikastetxeak:

« Unis Pour Cambo » zerrendak honakoak aurkeztu ditu:

- ERROBI kolegioa: Marie ARISTIZABAL
- St MICHEL kolegioa : Marie ARISTIZABAL
- XALBADOR kolegioa: Marie ARISTIZABAL
- Lehen mailako eta ama-eskola pribatu eta publikoak: Marie ARISTIZABAL

22 boz eskuratu dituzte.

« Nahi Dugun Herria » zerrendak honakoak aurkeztu ditu:

- ERROBI kolegioa: Philippe BACARDATZ
- St MICHEL kolegioa: Philippe BACARDATZ
- XALBADOR kolegioa: Argitxu HIRIART-URRUTY
- Lehen mailako eta ama-eskola publiko eta pribatuak: Lilian HIRIGOYEN

7 boz eskuratu dituzte.

Ikastetxeetarako ordezkari izendatu dira:

- ERROBI kolegioa: Marie ARISTIZABAL
- St MICHEL kolegioa : Marie ARISTIZABAL
- XALBADOR kolegioa: Marie ARISTIZABAL
- Lehen mailako eta ama-eskola pribatu eta publikoak: Marie ARISTIZABAL

24G – Turismo Erakargarritasun eta Garapena Agentzia:

« Unis Pour Cambo » zerrendak honakoak aurkeztu ditu:

Didier IRASTORZA, titular gisa;
Yolande HUGUENARD, ordezeko gisa.
22 boz eskuratu dituzte.

« Nahi Dugun Herria » zerrendak honakoak aurkeztu ditu:

Michel DUTHILLEUL, titular gisa;
Jean-Paul ALAMAN, ordezeko gisa.
7 boz eskuratu dituzte.

Turismo Erakargarritasun eta Garapena Agentziarako ordezkari izendatu dira:

- Titularra: Didier IRASTORZA
- Ordezkoa: Yolande HUGUENARD

24H - AIEC:

« Unis Pour Cambo » zerrendak Eliane AIZPURU eta Robert POULOU aurkeztu ditu eta hauek 22 boz eskuratu dituzte.

« Nahi Dugun Herria » zerrendak Argitxu Hiriart-Urruty eta Amaia BEYRIE aurkeztu ditu eta hauek 7 boz eskuratu dituzte.

Kanboko Egituren Arteko Elkarterako ordezkari izendatu dira:

- Eliane AIZPURU
- Robert POULOU

24I - Txakurrak sindikata:

« Unis Pour Cambo » zerrendak Roger Barbier titular gisa eta Maud GASTIGARD ordezeko gisa aurkeztu ditu. 22 boz eskuratu dituzte.

« Nahi Dugun Herria » zerrendak Michel DUTHILLEUL titular gisa eta Nathalie AICAGUERRE ordezeko gisa aurkeztu ditu. 7 boz eskuratu dituzte.

Herri arteko Txakurrak Sindikatarako ordezkari izendatu dira:

- Titular: Roger BARBIER
- Ordezkoa: Maud GASTIGARD

24J - Defentsa kontaktua:

« Unis Pour Cambo » zerrendak Nicole AMESTOY aurkeztu du eta honek 22 boz eskuratu ditu.

« Nahi Dugun Herria » zerrendak Amaia BEYRIE aurkeztu du eta honek 7 boz eskuratu ditu.

Defentsa kontaktu izendatu da:

- Nicole AMESTOY

25 – Hautetsien formakuntza (Aizpuru andereak aurkeztua).

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L. 2123-12 artikulua dio herri biltzarra berri eta hiru hilabetera « ...Herri Biltzarrak bere kideen formakuntzarako eskubidearen gauzatzeaz erabaki behar duela. Horretarako norabideak eta bideratuko dituen kredituak finkatzen ditu... »

Herri Biltzarkideek beren funtzioari dagokien formakuntza egokitu baterako eskubidea dute. Agintaldiaren lehen urtean nahitaez formakuntza bat antolatu behar da, eskuordetza duten kideentzat.

Proposatu du eskuordetza edo eginkizun bereziak dituzten hautetsiek lehentasunez formakuntza egin dezaten arlo horietan. Bizkitartean, auzapezaren iritziz, ingurune juridiko eta instituzionala gero eta konplexuagoa baita, hautetsiek ahal bezainbat formakuntza egin behar dute. Honela, herri biltzarkideek beren funtzioetarako egingo dituzten formakuntza eskaera guztiak baikorki bideratuko dira, ahal den neurrian.

Oroitarazten dute, herriak formakuntza gastu horiek bere gain har ditzakeela, baina soilik formakuntza eskaintzen duen egiturak Frantziako Barne Ministerioaren baimena baldin badu eta eskaerak hautetsi zereginarekin ikustekorik baldin badu. Formakuntza horiek Pirinio Atlantikoetako Departamenduan egin behar dira, edo bestela auzapezaren baimenarekin.

Formakuntza gastuetan sartzen dira:

- Garraio gastuak (garraioa, ostatatzea, aterpea),
- Irakaskuntza gastuak,
- Hautetsiak paira lezakeen soldata, edo bestelako irabazien galera egiaztatuen ordaintzea gutxieneko soldata bat eta erdira eta hautetsi bakoitzeko gehienez 18 egunera mugatuko da (Frantziako LKKO R2123-14 artikulua).

Formakuntza gastu hauen ordaintzeko 2 500 €ko kreditu bat proposatzen du, 6535 lerrotik hartua.

Aho batez onartua.

26 – Langileria: enplegu sortzea (Aizpuru andereak aurkeztua).

Langile baten barne postu aldaketari aurre egiteko eta 2020ko iraileko sartzeko horren ordezkatzeko, Herri Biltzarrari proposatzen dio 2020ko ekainaren 30etik Ama-eskolako Luralde Agente Berezitu (ABLA/ATSEM) denbora osoko postu iraunkor baten sortzea honako bi graduetan:

- 1. klaseko ABLA nagusia,
- 2. klaseko ABLA nagusia.

Aho batez onartua.

27 – Ur edangarriaren eta saneamendu sare kolektibo eta ez kolektiboen zerbitzuaren 2018 kalitate eta prezioen txostena (Goytino jaunak aurkeztua).

Herri Biltzarrak ur edangarriaren eta saneamendu sare kolektibo eta ez kolektiboen zerbitzuaren kalitate eta prezioei buruzko 2018ko txostena kide guztiei igorri zitzaizela baieztatzen du.

28 – Eskolen kutxarako 2020ko dirulaguntza (Aizpuru andereak aurkeztua).

Herri Biltzarkideei proposatu die eskolen kutxarako zuzkidura 7 517 € tan finkatzea 2020 urterako.

Aho batez onartua.

Solasgai guztiak landurik, saioa 20:45etan bukatu da.